



LEGAZPI
KLIMA
2030

EGUNGO EGOERAREN LABURPEN AGIRIA

2016

**LEGAZPI KLIMA 2030.
KLIMA-ALDAKETA SAHIESTEKO ETA GARAPEN
IRAUNKORRAREN ALDEKO ESTRATEGIA.
(TOKIKO AGENDA 21)**

Laguntza teknikoa:
Haizea Ikerketa S.L. eta Factor CO2

Diseinua eta maketazioa:
Horregatik S.L.

Uztailak 2016



**LEGAZPIKO
UDALA**

www.legazpi.eus

Euskal Herria plaza 1 - 20230 | 943 73 70 30 | legazpi@legazpi.eus

AURKI BIDEA




1. AURREKARIAK	03
2. LANERAKO PROGRAMA METODOLOGIA	04
3. GAI EREMUAUAK:	
- Lurralde eta Planeamendua	05
- Biodibertsitatea eta Paisaia	06
- Ura	07
- Energia	08
- Aldaketa klimatikoa	09
- Osasuna	10
- Mugikortasuna	11
- Garapen ekonomikoa eta lan merkatua	12
- Hondakinak, atmosfera, akustika, lurzoru kutsatuak eta jarduera ekonomikoen arriskua eta kudeaketa	13
- Udal administrazioaren erosketak publikoak eta ingurumen kudeaketa. Komunikazioa, sentsibilizazioa eta herritarren parte-hartzea. Barne koordinazioa eta Transbertsalitatea...	14
- Hezkuntza, euskara, kultura, berdintasuna, bizikidetzak	15

LEGAZPIKO UDALAK 1998 URTEAN SINATU ZUEN AALBORG-EKO GUTUNA, IRAUNKORTASUNAREKIKO BERE KONPROMISOA FINKATUZ.


2008an onartu zuen Udal Osoko bilkurak 3. den eta orain arte indarrean egon den Tokiko Ekintza Plana. Plan honi 2014 urtean egin zitzaion azken berrikuspena eta momentu honetan agortutzat eman da.

Iraunkortasunaz haratago, 2009 urtean Klima-Aldaketaren Aurkako ibilbidea jorratzeari ekin zion. 2015 urtean ildo berri honetan pauso esanguratsu bat eman zuen nazioarteko Compact of Mayors ekimenaren agiria sinatuz eta klima-aldaketa arintzea eta aldaketara egokitzearen konpromisoa hartuz, besteak beste.

Une honetan, konpromiso horrek eraginda eta Tokiko Ekintza Plana berri behar bultzatuta, 4. Tokiko Ekintza Plana eta Klima Aldaketa arintzeko nahiz egokitzeko planak, era uztartuan diseinatu eta burutzea erabaki du Legazpiko udalak KLIMA-ALDAKETA SAIHESTEKO ESTRATEGIA (ARINTZEA ETA EGOKITZEA) ETA GARAPEN IRAUNKORRA -LEGAZPI 2030- (TOKIKO AGENDA 21EKO PLANA) osotasunezko proiektuaren baitan.



LEGAZPI KLIMA 2030 ESTRATEGIA KOMUNIKAZIOA EZINBESTEKOA DUEN ETA ERAGILE DESBERDINAK INTEGRATZEN DITUEN PROZESU PARTE-HARTZAILE MODUAN IRUDIKATU DA. ELEMENTU HORIEK BALIO ERANTSI BEREZI ETA NABARMENA EMATEN DIOTE ESTRATEGIARI.



Legazpiko gaur egungo egoera jasotzen duen eta hemen aurkezten den sintesi dokumentuak ondoren diseinatuko den strategiaren oinarria izatea du helburu. Dokumentu hau itxuratzeko aipatutako eragileen elkar lanaren fruitu diren ondoko **3 FASETAN ZEHAR EGIN DA LAN:**

1. FASEA PROIEKTUA MARTXAN JARTZEA

Udal politikari nahiz teknikariei abian jarritako strategiaren berri eman zitzairen.

2. FASEA INFORMAZIOA JASO ETA LANDU

Alde batetik, udal plangintza eta azterlan ugariren azterketa sakonak eta publikoak diren hainbat adierazleen analisiak hornitutako informazio kuantitatibo eta objektiboa jaso da. Bestetik, udal teknikariekin eginiko banakako eta taldekako bileretan informazio kuantitatibo zein kualitatiboa lortu da. Azkenik, herritarren iritzia jaso da Agenda 21eko Foroaren bitartez eta Galdetegi ireki bat jendearen eskura ipiniz.

Bestaldetik, aldaketa klimatikoari aurre egiteko udalerrriak duen ahalmena neurtzeko, mitigazio eta adaptazio analisi bat garatu da. Horretarako, alde batetik udalerrriaren Berotegi Efektuko Gasen (BEG) isurpenak aztertu dira, BEGen isurpenen inbentarioa eta proiektzioa garatuz, eta bestetik, zaurgarritasun analisi bat burutu da, ezinbesteko sektoreak analizatuz, hau da, osasuna, kanpo hirigintza, barne hirigintza, ura eta biodibertsitatea. Lortutako emaitzak udalerriko isurpenak eta zaurgarritasunak murrizteko neurriak finkatzeko oso baliogarriak izango dira.

3. FASEA SINTESI DOKUMENTUA IDAZTEA

1. FASEA

Politikariei aurkezpena

Teknikariei aurkezpena

Teknikariekin elkarrizketak

Teknikariekin lan saioa

Herritar foroa

Herritarrei galdetegia

Guztien arteko konpromisoa lortzea

Lanerako oinarriak ezartzea

Informazioa jasotzea

Konponbiderako lehen proposamenak

Legazpik gaur egun dituen gaitasunak eta erronkak aztertzea

Herritarren iritzia jasotzea hainbat gaien inguruan

3. FASEA

Politikariei aurkezpena

Teknikariei aurkezpena

SINTESI DOKUMENTUA BALIOZTATU
ETA LEHENTASUNEZKO ESKUHARTZE EREMUAK EZARRI

HELBURUAK

Legazpi Klima 2030 estrategiak diagnostiko fase honetan bilatzen dituen helburuak ondokoak dira:

1. Udalerrriaren lurralde, ingurumen, komunikazio, partaidetza, gizarte zein ekonomiari lotutako arlo multzoaren analisia egin aldaketa klimatikoa kontuan izanda.
2. Oraindik indarrean dauden eta garrantzitsuak diren aurreko Planeko ekintzak identifikatu.
3. Azterturiko arloekin zerikusia duten eta Plan berriaren barneragarriak diren udalarenak eta udal gaitetikoak diren plan eta programak identifikatu.
4. Legazpik dituen Berotegi Efektuko Gasen isurpenen inbentarioa eta proiektzioa garatu.
5. Legazpiren zaurgarritasun analisia garatu.
6. Balorazio horretatik abiatuta Strategiaren lehentasunezko eskuhartze arloak zein diren erabaki.
7. Hiritarren ikuspuntua barneratu iraunkortasuna eta aldaketa klimatikoari dagokionez.
8. Arloetan eskuduntza duten udaleko teknikari eta politikarien balioztatzea bermatu.

LURRALDE EREMUA



→ Legazpi Beasain-Zumarraga gune funtzionalean aurkitzen da. Gipuzkoako hegoaldean kokatuta dago, Donostiatik 64 km-ra. Honako hauek ditu mugakide: Iparraldean, Antzuola, Urretxu eta Zumarraga; mendebaldean, Oñati; hegoaldean, Zegama eta Altzaniako Partzuergoa; eta ekialdean, Zerain, Mutiloa eta Gabiria.



→ Legazpi udaleko 12km zehar doa Urola ibaia. Barrendiolako urtegia, eskualdea urez hornitzen du. Legazpi mendiz inguratuta dago. Hona hemen nabarmenenak: Gorostiaga, (947 m), Haizeleku (810 m), Arrolamendi (910 m), Arranoaitz (903 m), Jentiletze (913 m), Oregi (924 m), Otaño (860 m), Artzanburu (1360 m) eta Andraitz (1450 m).

UDAL LURZORUAREN EGITURA ORGANIKOA ETA ERABILERA



→ Lurraldearen erabilera banaketa ondorengoa da: lurzorua %95 urbanizazina da (4.003,6 ha), %1,59 sistema orokorraz osatuta dago (66,61 ha), %1,95 etxebizitzetarako lurzoruz (82,47 ha) eta %1,4 jarduera ekonomietarako lurzoruz (59,46 ha).



HIRIKO ETA HIRI INGURUETAKO BERDEGUNEAK



→ Legazpi 14 m²/biztanleko eremu berde ditu, Donostiak, Gipuzkoak eta EAEk dutena baino gutxiago, 34,93 m²/biztanleko, 18,24 m²/biztanleko eta 15,6 m²/biztanleko.




HIRI EGITURA ETA EHUNDURA



ETXEBIZITZA LURZORUAREN ERABILPEN INTENSITATEA 213,74 BIZTANLE/ETXEBIZITZA LURZORU KM² DA. ETXEBIZITZA DENSITATEA BIZITEGI-LURZORUAN 56,56 (ETXEBIZITZA/HA). AZKEN 11 URTEETAN %22,8 IGO DA.



→ **ARTIFIZIALIZATUTAKO LURZORUA LURZORU TOTALAREN %4,35 DA.** Donostiak, Gipuzkoak eta EAEk ordea, maila altuagoak dituzte, %38,83, %6,87, %6,89, hain zuzen ere.



ONDARE ARKITEKTONIKO ETA KULTURALA



→ Legazpi katalogatutako Hirigintza ondarea babesteko eta zaintzeko Plan Berezia du martxan. Honen helburuak dira baliozko ondare arkitektonikoa identifikatzea eta babesteko neurriak ezartzea. Legazpi ondare nabarmenenak ondorengoak dira: Brinkola-Zegama geltoki megalitikoak, Satui-Arrolamendi geltoki megalitikoak, Mirandaola burdinola, Azpikoetxe errota eta Agirre-Etxeberri.



Generoari dagokionez, ez dago emakume estatuarik udalerrian, ezta emakumezkoen izenik duen kalerik.

HIRI ANTOLAMENDUA



→ Legazpi (HAPO) Herri Antolamendurako Plan Orokorra 2008. urtean onartu egin zen, horrek jasangarritasun irizpideak kontuan hartzen dituela bai antolaketan eta baita lurzorua arautzean eta eraikuntzan ere adierazten du.



HIRI PAISAIA ETA GUNE HONDATUAK



→ Herria hiru herrigunez osatu dago, Brinkola, Telleriarte eta Legazpi. Azken honetan biztanleriaren %96,8 bizi da. Inpaktu klimatikoari dagokionez, uholdeen eraginez azpiegituren %10,41 kaltetuak izan daitezke. Gune hondatuei dagokionez, zenbait ekintza jarri dira martxan lurzorua berreskuratzeko, adibidez, Euskal Jaurilaritzak Ekober-i SIDENOR hondakindegiko lurzoruko zapak berreskuratzeko baimena eman zion 2014an.



HERRITARREK ESATEN DUTE:

- Herriaren erdialdeko azpiegituren egoera (espaloiak, kaleak,..) gero eta hobea da, baina kanpo auzoen egoera, Brinkola adibidez, ez da egokia. Herritarren ustez, auzoak gaizki daude diru eta denbora gutxi inbertitzen delako.
- Ibaietako eta parkeetako egoera hobetu beharra dago, bai Legazpiarren aldetik, hauek zainduz, baita garbiketa gehiago eginez.

LEHENTASUNEZ ESKU HARTZEKO EREMUAK:

- Udalerria funtzionalak eta irisgarritasun onekoak diren hiri parkez eta berdegunez hornitu eta ahal den neurrian elkar lotzen dituen sarea sortu.
- Gune berdeen mantenu iraunkortasun irizpideak (sistema ekologikora igarotzea) eta baliabideen aurrezpena txertatzea.
- Lurzorua berreskuratzeko Eusko Jaurilaritza eta enpresen inplikazioa bultzatzea.
- Nekazal bokazioa duten lurzoruen babes jarduerak garatzea.
- Dagoena berritzea, gaur egun ez da beharrezkoa gehiago eraikitzea.

ALDAKETA KLIMATIKOAREN AURKAKO SEKTOREAREN AHULTASUNAZ:

Sektorea	Temperatura aldaketa	Prezipitazioen aldaketa	Bero-boladak	Uholde-urak	Uholdeak	Oso garrantzitsua	Ertaina
Kanpo Hirigintza	2,8	2,7	3,5	3,7	4,2	Garrantzitsua	Baxua
							Baztergarria

Ahultasun analisia egin ondoren, Kanpo Hirigintzaren ahultasuna Aldaketa Klimatikoarekiko 16,8 (maila baxua) dela eta beraz, sektore honek, batetik batera, 5.mailako lehentasuna duela jarduera-lerroak ezartzeko orduan adierazi daiteke. Hirigintzari dagokionez, uholdeak eta uholde-urak arrisku klimatiko nabarmenenak izango dira. Hala ere, ondorioak ez dira oso garrantzitsuak izango.

NATURA ETA PAISAIA BALIOAK




→ Baso lurzorua udalerrriaren %80,24 da. Bertan, espezie koniferoak %72 dira eta espezie hostotsuak %28. Baso landare motei dagokionez, *Pinus nigra* (%30,9) nagusitzen da, baina *Pinus radiata* ere azalera handietan aurkitu daiteke (%26,1).

LORE INBADITZAILERIK NABARMENENA *ROBINIA PSEUDOACACIA* DA, 4 HA-KO AZALERA DUENA (%0,12). *SASI AKAZIA*, *BUDDELEJA DAVIDII*, *CORTADERIA SELLOANA* ETA *FALOPIA JAPONICA* ESPEZIEAK AIPATZEKO DIRA ERE BERE INBADITZEKO AHALMENA ALTUAGATIK. HORI DELA ETA, DESAGERRARAZTEKO EKINTZAK AZKAR EZARTZEA BEHARREZKO DA.



BASO ESPEZIEEN AZALERAREN BANAKETA




■ <i>Pinus sylvestris</i>	31 ha
■ <i>Pinus nigra</i>	776 ha
■ <i>Pinus radiata</i>	439 ha
■ <i>Pseudotsuga menziesii</i>	50 ha
■ <i>Larix spp.</i>	349 ha
■ <i>Quercus petraea</i>	108 ha
■ <i>Fagus sylvatica</i>	384 ha
■ Baso misto atlantikoa	124 ha
■ Bestelakoak	66 ha

→ Animalei dagokionez, arrain espezie aniztasun urria kezkatzekoa da. Izan ere, 2009ko ikerketan, 4 espezie baino ez ziren aurkitu. Euskadin aurkitu daitezkeen 35 herpeto espezieetatik, %51,43 Legazpin bizi dela aipatzekoa da.

ESPEZIEEN ARABERAKO FAUNAREN BANAKETA ONDORENGOA DA:

- Hegaztiak %56
- Ugaztunak %31
- Narrastiak %7
- Anfibioak %4
- Arrainak %2



JARDUEREN ERAGINA ETA ARRISKUAK NEKAZARITZAN ZEIN NATUR INGURUNEAN



→ Hirigunetik hurbil dauden eremuetan hurbiltasunaren ondorioak nabarmentzen dira; adibidez: elektrizitate lineetan, hondakindegietan,.... Aizaleku-Arraseta arroan dauden goi-tentsioko lineetan azken hamarkadetan egon diren suteak aipatzekoak dira.



SISTEMA NATURALEN ETA PAISAIAREN KONTSERBAZIO EGOERA



→ Horrez gain, mehatxatutako 50 animalia espezie daude udalerrian, baina bakar batek ere ez dauka desagertzeko arriskua handirik. Mehatxatutako espezieen %96 ugaztunak eta hegaztiak dira. Espezie inbaditzailei dagokionez, **ARRETA GEHIEN BEHAR DUTENAK ONDOKOAK DIRA: *PACIFASTACUS LENIUSCULUS* (SEINALEDUN IBAI-KARRAMARROA), *AEDES ALBOPICTUS* (MOSKITO TIGREA) ETA *VESPA VELUTINA* (ASIAKO LISTORRA).** Beste batzuk ere aurkitu daitezke, esate baterako; *Potamopyrgus antipodarum*, *Procambarus clarkii*, *Micropterus salmoides*, *Exos lucius*, *Carassius auratus*, *Trachemys/Graptemys/Pseudemys* eta *Neovison vison*.



BABESTUTAKO NATURGUNEAK



→ Udalerrian babes berezia duen azalera, totalaren %24,48a. Udalerrian, Aizkorri-Aratz Parke Naturala dago.



HORREZ GAIN KOROSTIAGAKO MENDIA ETA AIZKORRIKO MENDILERROA INTERES NATURALISTAKO LEKU BEZALA SAILKATUTA DAUDE. BARRENDIOLA ETA URTATZAKO URTEGIAK PTS-KO HEZEGUNEETAN SARTUTA DAUDE.

NATUR INGURUNEAREN ANTOLAMENDUA ETA KUDEAKETA



→ Natur ingurunearen antolamenduari dagokionez, Korostiagako artoa Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean Babestutako Eredu Sozializat hartuta dago. 2012an, Aranzaldi-k inbentario bat egin zuen fauna, flora eta paisaiaren inguruan, baina ez da monitoretzarik egin momentu hartatik.



HERRITARREK ESATEN DUTE:

- Herri inguruan dauden pinudiak bertako landareez ordezkatzeko neurriak bultzatzea falta da.
- Mendian ibiltzen diren motorren kontrola hobetu behar da. Jende gehien erabiltzen dituen mendi bideetan motorrekin nahi den abiadura eta moduan ibiltzea ezinezkoa da.
- Arautu egin beharko litzateke, bakoitzak bere unea izanez, mendi bideez gozatzeko, edo motorrak ibiltzeko eremuak propio sortuz.

LEHENTASUNEZ ESKU HARTZEKO EREMUAK:

- Interes guneak gizarteratzea eta babesteko edo hobetzeko aktuzioak egitea.
- Herritarren parte-hartzea eta inplikazioa bilatuz, ingurugiroarekin loturiko heziketa eta zabalkunderako ekintzak areagotu.
- Ibai-bideen korridore ekologiko gisako jarraitasun funtzionala segurtatu.
- Bertako espeziez osatutako baso masak mantentzen laguntzea eta bultzatzea
- Motor ibilgailuak natur ingurunean arautu eta kontrolatu.
- Flora eta fauna espezie inbaditzaileen aurka egin eta jarraipena burutu.

ALDAKETA KLIMATIKOAREN AURKAKO SEKTOREAREN AHULTASUNAZ:

Sektorea	Temperaturen aldaketa	Prezipitazioen aldaketa	Bero-boladak	Uholde-urak	Uholdeak	Oso garrantzitsua	Ertaina
Biodibertsitatea	4,6	4,6	4,7	2,8	2,3	Garrantzitsua	Baxua
							Baztergarria

Ahultasun analisia egin ondoren, Biodibertsitatearen ahultasuna Aldaketa Klimatikoarekiko 18,9 (maila ertaina-bajua) dela eta beraz, sektore honek, batetik bostera, 4. mailako lehentasuna duela jarduera-lerroak ezartzeko orduan adierazi daiteke. Biodibertsitateari dagokionez, bero-boladak, temperatura eta prezipitazioaren aldaketak arrisku klimatiko nabarmenenak izango dira. Hala ere, ondorioak ez dira oso latzak izango.

UR HORNIDURA




→ Legazpiko udalerriko ur hornikuntza Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku dago, udal saretik abiatuta. Barrendiolako hornidura sistemak edateko uraz hornitzen du Legazpi.



→ **ALTAN HORNITUTAKO UR KOPURUA 494.348 m³ IZAN ZIREN 2014AN, %37,9ko BEHERAKADA JASAN DU 2002. URTETIK. UR KONTSUMO TOTALA 2014. URTEAN 432.321 m³ IZAN ZEN. 2000-2008 BITARTEAN, UR KONTSUMOAN IGOERA IZAN ZEN, 2005. URTEAN MAXIMORA AILEGATUZ, 739.565 m³. ALABAINA, 2009. URTETIK AUERRERA BEHERAKA IKARAGARRIA NABARITU ZEN.**

UDALAREN UR ESKAERA TOTALAREN EBOLUZIOA (ALTA ZERBITZUAN)



SANEAMENDUA ETA ARAZKETA



→ Saneamendu sareari dagokionez, Udalak, E.D.A.R Zuringoain-ra bidaltzen ditu urak. Etxebizitza gehienak estolderiekin loturik daude edo uren tratamendu sistema egokia dute.



URAREN ZIKLOAREN ARAUDIA ETA KUDEAKETA



→ Krisiaren ondorioz, industriek gero eta ur gutxiago erabiltzen dute.



SENTSIBILIZAZIOA



→ Sentsibilizazioari eta parte hartzeari dagokionez, udalean, EAEn egiten diren ingurumen heziketari buruzko ekintzen batezbestekoaren bikoitza egiten dira.



BALIABIDE HIDRIKOEN ERABILGARRITASUNA ETA KALITATEA



→ Erabiltzeko uraren osasungarritasunaren kalifikazioa 3 da, non 1 kalitatea txarra dela, eta 3 ura edangarria dela adierazten duen. Ibaien egoera ekologikoa dagokionez, hau 2 behatokitian neurtzen da. Ibaiek izan dezaketen egoera 1etik 5era sailkatzen da, 1a egoera txarra eta 5a egoera oso ona izanes. 1º behatokitiko 2013ko balioa 4 izan zen, 2004. urtean baino puntu bat baxuago (5). 2º behatokitian aldiz, balioa 2 izan da azken urteetan.



EDATEKO URA BANATZEKO SAREA




AZKEN URTEETAN, KONTROLIK GABEKO UR BOLUMENEN PORTZENTAIAK ONDORENGOAK IZANDA DIRA: 2010. URTEAN %19,7a ZEN ETA 2014. URTEAN %12,8a, JOERA GERO ETA HOBEA IZANEZ.

→ Ur bolumen hauek ondorengoek sor ditzakete: neurgailuen azpikontaketa, neurtu gabeko kontsumoa (bideak garbitzea, suak itzaltzeko zerbitzua, e.a.), kontrolatu gabek eta iruzurrak edo neurgailuak jarri aurretik instalazio pribatuetan izandako ihesak. Dena den, ez dago 10 urte baino gehiago duen ur kontagailurik.



UR BANAKETA SAREAREN GALEREN EBOLUZIOA URAREN ESKAERA TOTALAREN ARABERA



ESKAERA ETA KONTSUMOA




→ Etxebizitzetako kontsumoari dagokionez, ur kontsumo totalaren antzeko joera mantendu du. 2014eko etxebizitzetako ur kontsumoa 302.366 m³ izan ziren. Gainerakoen kontsumoak ere beheranzko joera erakutsi du, 2014. urtean 129.955 m³-ko kontsumoa izanez.



BIZTANLE ETA EGUNEKO UR KONTSUMOA 2015. URTEAN 100,2 L/BIZT/EGUN IZAN ZEN, 2004. URTEAN, ORDEA, 114,6 L/BIZT/EGUN. ETORKIZUNARI BEGIRA, BIZTANLERIAK GERO ETA UR KOPURU GUTXIAGO KONTSUMITUKO DUELA DIRUDI.

BIZTANLE ETA EGUNEKO ETXEKO UR ESKAERAREN EBOLUZIOA



ALDAKETA KLIMATIKOAREN AURKAKO SEKTOREAREN AHULTASUNAZ:

Sektorea	Temperaturen aldaketa	Prezipitazioen aldaketa	Bero-boladak	Uholde-urak	Uholdeak	Oso garrantzitsua	Ertaina
Ura	4,9	3,6	5,0	3,8	3,5	Garrantzitsua	Baxua
							Batzegarria

Ahultasun analisia egin ondoren, Uraren ahultasuna Aldaketa Klimatikoarekiko 20,8 (erdi maila) dela eta beraz, sektore honek, batetik bostera, 3. mailako lehentasuna duela jarduera-lerroak ezartzeko orduan adierazi daiteke. Ura sektoreari dagokionez, bero-boladak eta tenperaturaren aldaketak arrisku klimatiko garrantzitsuenak izango dira, haien ondorioak larriak izanez.

HERRITARREK ESATEN DUTE:

- Orokorrean, uraren hornidura, kalitatea eta arazketa egokiak dira.
- Inkesta bete duten herritarren %70ak, ur kontsumoa murrizteko prest daudela adierazi du.

LEHENTASUNEZ ESKU HARTZEKO EREMUAK:

- Baliabide hidrikoaren optimizazioa gauzatu, euri urei edo beste jatorrietako urei, osasunerako kaltegarriak ez diren erabilerak bilatuz.
- Baliabide hidrikoarekin erlazionaturiko presioak ezaugarritu eta ur masak babesteko neurriak hartu.
- Aurretik araztu ez diren hondakin uren isurpenak saihestu.
- Herritarreen eta udaleko instalazioak erabiltzen dituztenen artean, kontsumoaren murrizpenaren sentsibilizazioa sustatu.

EGITURA ENERGETIKOA




INDUSTRIARIK GABEKO URTEKO KONTSUMO ELEKTRIKOA GORANZKO JOERA IZAN ZUEN 2009. URTEA ARTE.

→ Momentu hartatik aurrera beherakada bat izan du. Gas naturalaren kontsumoari dagokionez, gero eta altuago da urte bakoitzean.



INDUSTRIARIK GABEKO URTEKO KONTSUMO ELEKTRIKOA




2013. URTEAN KONTSUMO ENERGETIKOAREN BANAKETA ONDOKOA ZEN: MUGIKORTASUNA %44,54, INDUSTRIAREN KONTSUMOA %35,39, ETXEBIZITZAREN KONTSUMOA %15,06 ETA ZERBITZUEN KONTSUMOA %5,02a.


ALABAINA, 2006AN ENERGIA BANAKETA OSO DESBERDINA ZEN. IZAN ERE INDUSTRIAREN KONTSUMOA 2006. URTEAN 200,2 GWH ZEN ETA 2013AN ALDIZ, 79,6 GWH.

BERAZ 2006. URTEAN KONTSUMO ENERGETIKOAREN BANAKETA ONDORENGOA ZEN: MUGIKORTASUNA %30,79, INDUSTRIAREN KONTSUMOA %50,64, ETXEBIZITZAREN KONTSUMOA %7,69 ETA AZKENIK ZERBITZUEN KONTSUMOA %2,88.

KONTSUMO ENERGETIKOA ARLOAREN ARABERA




ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EKOIZPENA



ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EKOIZPENAK IGOERA NABARMENA IZAN DU AZKEN URTEETAN. 2006an 34,51MWh BAINO EZ ZIREN EKOIZTEN, 2013an ORDEA, 570,37 MWh ARTE IGO ZEN EKOIZPENA. HALA ERE, 2013. URTEAN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN BIDEZ LORTUTAKO ELEKTRIZITATEA, KONTSUMO ELEKTRIKO TOTALAREN %0,6a BAINO EZ ZEN. ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ARTEAN, BIOMASATIK LORTUTAKO ENERGIA PISU HANDIENA DUENA DA, %71. ONDOREN, ENERGIA GEOTERMIKOA (%16), EGUZKI ENERGIA FOTOVOLTAIKOA (%12) ETA ENERGIA MINIEOLIKOA(%1).



ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EKOIZPENA



TOKIKO ADMINISTRAZIOKO ENERGIAREN KONTSUMOA ETA KUDEAKETA



→ Argiztapen sistema publikoari dagokionez, 2009an argiztapen puntuak herriko biztanleriaren %206,7 ziren, 2005ean baino 9,72 puntu gutxiago. Gainera honen elektrizitate kontsumoa, 134,4 kWh/biztanle/urte izan zen 2013. urtean, 2006koa baino altuagoa, 117,8 kWh/biztanle/urte. Zerbitzu publikoen eraikuntzen elektrizitate kontsumoari dagokionez, 1,07GWh izan zen 2013. urtean eta 0,75 GWh ordea, 2006.urtean.

→ 2014. urtean eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria zuten etxebizitzak %16,34 ziren, 2009. urtean berriz, %36,65.

→ 2004-2009 urteen bitartean ziurtagiriekin hazkuntza izan zuten, baina berriro beherakada jaso dute.

→ 2013. urtean Udaletxeko flota 10 ibilgailuz osatuta zegoen, eta bat bakarra ere ez zen elektrikoa. 2009an, aldiz, 7 ibilgailu baino ez zituen.

→ Eskualdeko Energia Plana dago abian da.



ENERGIA KUDEATZEKO ARAUDIA



Azken urteetan Udalak hainbat aldaketa egin ditu III. PAL-a jarraituz, alde batetik elektrizitate kontsumoa gutxitzeko eta bestetik, herri jasagarriagoa izateko.



SENTSIBILIZAZIOA



Udalak, udalerriko igorpenen informazioari eta ekintza jasagarriari buruzko sentsibilizazio eta komunikazio ekintzak garatu ditu.




HERRITARREK ESATEN DUTE:

- Energia pobrezia dago udalerrian. Izan ere, gasaren eta argiaren gehiegizko balioa dela eta, berogailua piztu ezin dezaketen familiak daude herrian. Horrez gain, etxebizitzaren isolamendua eraginkorra ordaindu ezin duten zenbait familia daude herrian.
- Auto elektriko gutxi ikusten dira herrian. Normalean udaltzainena baino ez.

LEHTASUNEZ ESKU HARTZEKO EREMUAK:

- Udal administrazioan tokiko energia iturri garbi eta berriztagarrien ekoizpen eta erabilera aurrera egitea.
- Energia berriztagarrien erabilera eta energia eraginkortasuna bultzatu herrian eta ekonomia jardueretan (lehen, bigarren eta hirugarren sektorean).
- Energia eraginkor eta berriztagarrien erabilera irizpideak Hiri Plangintzan txertatu.
- Udal instalazio eta ekipamenduetan energia kontsumoen kontrol eta jarraipena sistematizatu eta kontsumoak arrazionalizatu.
- Kale argiztapenaren energia kontsumoak optimizatu.
- Udal langileen energia arloko trebakuntza eta sentikortzea.
- Energia txirotasuneko egoerak identifikatu eta arindu.
- Herriaren sektore desberdinak sentikortzea energiaren aurrezpen eta erabilera garrantziaren inguruan.
- Ibilgailu elektrikoaren erabilpena sustatu.


KLIMA ALDAKETARI EGITEN ZAION EKARPENAK



→ LEGAZPIKO UDALERRIKO 2013ko BEROTEGI EFEKTUKO GASEN ISURPENAK (BEG) 66.623 tCO₂e IZAN ZIREN. 2006.URTEAN ALDIZ, 122.093 tCO₂e. DENA DEN, MURRIZPEN HORI, INDUSTRIEN EKINTZA ETETEAREN ONDORIOA BAINO EZ DA. INDUSTRIARIK GABEKO ISURPENAK KONTUAN IZANEZ GERO, IKUS DEZAKEGU NOLA 2006-2009 BITARTEAN IGOERA TXIKI BAT JASO ZELA, BAINA NOLA 2006eko ETA 2013ko DATUAK OSO ANTZEKOAK DIRELA, 39.241 tCO₂e ETA 38.408 tCO₂e, HURRENEZ HURREN.




UDALEKO BEG ISURPENAK SEKTOREAREN ARABERA



→ UDALERRIKO ISURPENEN BANAKETARI DAGOKIONEZ, ZENBAIT INDUSTRIA EKINTZA ETETEAREN ERAGINEZ, 2006-2009 BITARTEKO ISURPENEN BANAKETA ETA GAUR EGUNGO DATUAK, NAHIKO DESBERDINAK DIRA. 2013ko ISURPENEN BANAKETA ONDORINGOA IZAN ZEN, INDUSTRIA %42, MUGIKORTASUNA %41, BIZITEGIAK %12, ETA ZERBITZUAK %5 DA.

→ UDALETXEKO ISURPENEI DAGOKIONEZ, BEHERAKADA NABARMENA IZAN DA 2009tik AURRERA, AURREKO URTEEN IGOERAREN ONDORIN. 2006an 1.293,2 tCO₂e ISURTZEN ZIREN, 2013an ORDEA, 835,1 tCO₂e.

UDALEKO BEG ISURPEN TOTALAK



KLIMA ALDAKETAREN AURKAKO BORROKA PLANIFIKATZEKO BERARIAZKO TRESNAK




→ Legazpiko Udalak hainbat urte darama Aldaketa Klimatikoaren aurkako borrokan, 1998ko Aalborg-eko gutuna sinatu zuenetik, hain zuzen ere. Momentu hartatik ona, beste hainbat proiektutan parte hartu du udalak; adibidez, Tokiko Ekintza plana aurrera eraman zuen, Udalsare 21ekintzan parte hartu zuen (kide fundatzailea izan zen), Klimaren aurkako Udal Ordenantza egin zuen Alkateen Itunerantz Zuzenduz ekimenean parte hartu du, "Compact of Mayors" sinatu zuen eta orain, Legazpi 2030 ekintza plana jarri du martxan.



HUSTUBIDEEN KUDEAKETARI ETA ISURPEN KONPENSATZIOEI LOTUTAKO BERARIAZKO EKIMENAK



→ Isurpenen konpentsazioari dagokionez, zenbait ekintza jarri dira edo jarriko dira martxan etorkizunenean; ibaiertzeko landaredia mantentzeko eta hobetzeko plan bat Eusko Jaurlaritzarekin batera sortzea, udalerriko aldaketa klimatikoaren aurkako moldagarritasun ekintzak sustatzea...



SENTSIBILIZAZIOA ETA PARTAIDETZA



→ Herritarren sentsibilizazio maila areagotzeko, zenbait proposamen daude abian; adibidez, isurpenen inbentarioa jakitera ematearen kanpaina.



ARRISKU NATURALAK ETA TEKNOLOGIKOAK



→ Udalerriko arriskurik nabarmenenak uholdeak eta muturreko gertaerak dira. Gaur egun, udalerrian urpetu egin daitekeen lurzorua, %10,41 da.



ARRISKU NATURALA ETA TEKNOLOGIKOA KUDEATZEA



→ Legazpik Udalerriko larrialdietarako Plana du eta Udaletxeak 2016an hau berriztatuko duela adierazi du. Ingurumen kudeaketa sistemaren ezarpenen maila (ISO 14001, EMAS, Ekoscan, Jasagarritasun txostenak) erakunde handietan eta ETEetan ziurtatutako sistema kopurua 1 izan zen 2013an, 2011-2012 bitartean 7 eta 2003-2010 bitartean 9. Instituzio publikoetan aldiz, ziurtatutako sistema kopurua 2007-2013 bitartean 2 izan zen.



HERRITARREK ESATEN DUTE:

- Energia berriztagarrien erabilpen handiagoa egin beharko litzateke udalerrian.
- Temperatura igoeratik babesteko parke estali gutxi daude, adibidez, Latxartegiko parkeak ez dauka arkuperik eguzkitik babesteko.

LEHENTASUNEZ ESKU HARTZEKO EREMUAK:

- Udalerriri osoko berotegi efektua duten gasen inbentarioa kalkulatzeko jarraitu eta igorpen maila murriztu.
- Herritarren sentsibilizazioa eta erantzunkidetasun ekintzak garatu.
- Baso birlanaketakarako proiektuak sustatzea eta bultzatzea emisioen konpentsaziorako eta karbonoaren finkapenerako.
- Ingurumen arrisku edo eragina sortzen duten industrien jarraipena egiten jarraitzea.
- Udal larrialdi plana eguneratzea.
- Uholdeak eta luiziak direla eta, kaltetu egin daitezkeen bizitegi guztiak babestu.
- Lehorte ondorioz lehen sektorean egon daitezkeen arrisku klimatikoak aztertu.

BIZTANLERIA

LURRALDEAREN TESTUINGURUAN KOKATZEA




→ Legazpiko udalerrian 2015. urtean 8.521 biztanle bizi ziren, Gipuzkoako totalaren %1,12, eta probintziako udalerrien batezbestekoaren gainetik.

EGITURA DEMOGAFIKOA



LEGAZPIKO BIZTANLERIAREN PIRAMIDEA, ERREGRESIBOA DA. 65 URTEKO EDO GEHIAGOKO BIZTANLERIA, BIZTANLERIAREN %23,89a ZEN 2015EAN, 2003. URTEAN, ALDIZ, %19,9a. GAINERA, 75 URTE EDO GEHIAGOKO BIZTANLERIA, %7,87a OSATZEN ZUTEN 2003an ETA 2015ean, BERRIZ, %12,51a. JOERA HAU MANTENDUZ GERO, LEGAZPIKO BIZTANLERIA ZAHARKITZE MAILA ATZERA EZIN ETARA IRITSIKO DA.

PIRAMIDE DEMOGAFIKOA 2013



EKIPAMENDUAK ETA OSASUN LANGILEAK

→ Hirigunetik ospitalera gutxi gorabehera 5 km daude. Udalerrian, 4,64 Farmazia daude 10.000 biztanleko eta 1,15 Komun publiko 10.000 biztanleko. Udalerrian osasun zentro bat dago eta Zumarragan ospitale bat. Goierrri-Urola Garaiko ESI barruan dago Udalerria. Biztanle-gune nagusietara inguratzeko helburuz, Beasaingo eta Azpeitiako lehen mailako atentzioko unitateetan, asistentzia espezializatua eta anbulatorioa ematen da. Errehabilitazio-jarduerak Ospitalean eta Beasaingo, Azpeitiako, eta Zumarragako lehen mailako unitateetan banatutako 4 gimnasioetan egiten da.




BIZTANLERIAREN BILAKAERA



→ Azken 20 urteetan Legazpiko biztanleriaren aldaketa negatiboa egon da. Izan ere, 1998tik gaur egun arte, 9.278 biztanletik 8.521ra jaitsi da.

→ Hazkunde begetatiboa azken hamarkadan desberdina izan da, 2009-2011 urteen bitartean gorantz egin du, baina hortik aurrera ordea beherantza, gaur egun %0-1,98ra iri heldu den arte.

HAZKUNTZA TASA BEGETATIBOA



MUGIMENDU NATURALA ETA MIGRATZAILEA



→ Atzerritar biztanleria 2015ean %3,45koa izan zen, 2003-2015 bitartean 2,5 puntu igo da, hala ere, eskualdeko batez bestekoaren azpitik dago. 2004 eta 2013 urteen bitartean kanpo migrazio saldoa positiboa izan zen, beraz, alde egin zuen baino jende gehiago sartu zen herrian. Aitzitik, 2014. urtean saldoa negatiboa izan zen, %0-3,39, hain zuzen ere.

POPULAZIOAREN BANAKETA, LURRALDEKO



Sexu arteko banaketan, %49,22 emakumeak dira eta %50,78 gizonezkoak.

ETXEBIZITZA



ETXEBIZITZA PARKEAREN EZAUGARRIAK



→ Legazpiko etxebizitza dentsitatea egoitzatarako lurzoruan 56,56 etxebizitza/ha da, Gipuzkoako datutik gertu (60,30 etxebizitza/ha), eta EAE-koa baino altuagoa (45,65 etxebizitza/ha). Etxebizitza kopuruari dagokionez, udalerrian 4.463 etxebizitza zeuden 2015. urtean, 2011. urtean baino 38 etxebizitza gehiago. 2011an, udalerriko etxebizitzen %13,62a hutsik zegoen, 2001an aldiz, %8,64a baino ez zeuden hutsik. 2011ko datuekin konparatuz gero, ikusi dezakegu nola Legazpi, Gipuzkoako eta EAEko datuen gainetik dagoela.

→ Familia etxebizitza nagusien erosotasun indizea %76,5 zen 2011ean, EAEko batez bestekoaren gainetik (%72) baita Gipuzkoa gainetik ere(%72,3).

ETXEBIZITZEN ANTZINATASUNA ETA ZAHARBERRITZEA

2014AN 50 URTE BAINO GEHIAGO ZUTEN ETXEBIZITZEN KOPURUA, ETXEBIZITZA GUZTIEN %29,15a



ZEN, GIPUZKOA ETA EAE BAINO KOPURU HANDIAGOA. 2001. URTEAN FAMILIA ETXEBIZITZEN %9,39 HONDATUA, TXARTO EDO EGOERA ESKASEAN AURKITZEN ZEN, GIPUZKOAEN AZPITIK (%14,92), BAINA EAEKO BATEZ BESTEKOAREN GAINETIK (%8,67).

HIGIEZINEN ESKAINTZA: ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA



→ Indarrean dagoen planeamenduan 471 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 461 geratzen dira eraikitzeko egoitzarako lurzoruan.

ETXEBIZITZA BEHARRA ETA ESKAERA



→ Legazpiko Udalerrian, babes ofizialeko etxebizitzen eskariak beherakada bat jasan izan du. 2009. urtean biztanleriaren %37,51 eskatzen zituen, 2014an aldiz, %11,97ak baino ez zituen eskatu.

→ Legazpin aurreikusitako HAPNaren lurzoru hiritarrean eta urbanizagarrian gehienez 1.150 etxebizitza berri aurreikusten dira.

KIROLA

ERAKUNDE ARLOA

→ Udalerriak guztira 19 kirol instalazio ditu, estaliak eta ez estaliak. Instalazio nagusia Bikuña polikiroldegia da; bere kudeaketaz Udala arduratzen da zuzenean.



KIROL EKIPAMENDUAK ETA HORIEN ERABILERA



→ Kirol eskaintza anitza eta ugaria da, bai kirola osasun iturri bezala ulertuta eta baita

kirola federazio bezala ulertuta ere, hau da, kategoria ezberdinetako lehiaketa kirola.

KIROL JARDUERAK ETA EKINTZAK

→ Legazpin 15 kirol klub daude, 12 kirol modalitate ezberdin ordezkatuz.



Klubetan, %29,57 baino ez direla emakumeak aipatzekoa da. Hori dela eta, emakumeak klubetan presentzia handiago izateko analisi bat egitea interesgarria izango litzateke.

ALDAKETA KLIMATIKOAREN AURKAKO SEKTOREAREN AHULTASUNAZ:

Sektorea	Temperaturen aldaketa	Prezipitazioen aldaketa	Bero-boladak	Uholde-urak	Uholdeak	Oso garrantzitsua	Ertaina
Osasuna	4,9	3,9	7,8	4,3	3,7	Garrantzitsua	Baxua
							Batzegarria


Ahultasun analisia egin ondoren, Osasunaren ahultasuna Aldaketa Klimatikoarekiko 24,6 (maila altua) dela eta beraz, sektore honek, batetik batera, 1.mailako lehentasuna duela jarduerak ezartzeko orduan adierazi daiteke. Osasunari dagokionez, bero-boladak arrisku klimatiko nabarmenena izango da. Horregatik, bero boladen ondorioak baretzeko neurriak hartu beharko dira. Batezbesteko tenperaturen igoerak ere kezkarriak izango dira.

DESPLAZAMENDUEN BANAKETA MODALA



→ EAEko biztanleriak mugimendu beharrak asetzeko erabilitako garraibide nagusiak oinezkoa eta autoa dira, 2011n eginiko inkestaren arabera.

EAE-n JOAN-ETORRIEN BANAKETA MODALITATEAREN ARABERA



Oinez	%45	Trenez	%4
Autoz	%31	Autobusez	%4
Bizikletaz	%7	Bestelakoak	%2

→ Legazpirako garraibide araberako mugikortasun daturik ez dago, baina herrian autoz mugitzeko ohitura handia dago. Udalerriko motorizazio maila handitzen joan da urtez-urte, baina azken bi urteetan zerbait txikituta da:

IBILGAILU KOPURUA



MERKANTZIAK



→ Oinezkoentzako bihurtu diren guneak dira zamalanetako puntu garrantzitsuenak eta kale horiek oinezkoentzako bihurtzeak hobekuntza nabarmena ekarri du, ezarritako ordutegi batzuetan bakarrik egiten baitira lan hauek.



MUGIKORTASUNAREN KUDEAKETA ETA ANTOLAKETA



→ 2008 urtean onartu zen Mugikortasun Iraunkorreko Plana, 2012an irisgarritasun planarekin dokumentu bateratu bat egin zen. Plan hauei jarraituz kudeatzen da herriko mugikortasuna eta irisgarritasuna. 2016 urtean mugikortasun plana berrikusiko da.



BIDE-HEZKUNTZA ETA SEGURTASUNA



→ Azken urte hauetan herrigunean ez da auto istripurik edo oinezkoen harrapaketarik gertatu. Oinezko, bizikleta eta autoen arteko elkarbizitza hobetu beharra dago, herri barruan autoek abiadura moteldu behar dute, bizikletek oinezkoak errespetatu behar dituzte, eta oinezkoek, berriz, bidegorriak. Guzti honetarako bide-hezkuntza ezinbestekoa da.



GARRAIO PUBLIKOAK



→ 2012ko urrian herri barruko autobus zerbitzua jarri zen martxan, JUNETORRI. 2015an eginiko balorazioaren ondoren, zerbitzua zabaldu egin da neguko asteburuetan arratsalde zerbitzua emanik.




→ 2015 urtean batez beste 3831 bidai egin ziren hilabete.

→ Eskualdeko beste herriekin Lurraldebuseko bi zerbitzu daude, bata Zumarragako ospitaletik Legazpirako zerbitzua ematen du orduro, bigarrenak Eskoriatza-Ezkoriatza zirkularra, Oñati, Bergara eta Arrasaterekin lotuz orduerdi.

→ Aldiriko tren zerbitzua Donostia orduro dago, maiztasun hau handitzea eta Gasteizeko zerbitzua hobetzea aspaldiko eskari bat da.

⊖ Eskualdean emakumezkoak dira garraio publiko gehien erabiltzen dutenak, JUNETORRIren kasua ere hala dela esan daiteke naiz eta datu zehatzik ez egon.

JUNETORRI ERABILTAILEAK



BIDE SAREA



Urretxutik San Prudentziora doan GI 2630 errepideak zeharkatzen du herria. Beasaindik Oñatiruntz doan trafiko asko Legazpitik pasatzen da orandik. Beasaindik Durangora doan autobidea amaitzen denean trafiko hau asko gutxitzea espero da.



BIZIKLETA SAREEN EZAUGARRIAK



→ Azken urte hauetan bidegorri sarea handitzen joan da, bai herri barruan baita Urretxu-Zumarragarekin lotura hobetuz ere, **GUZTIRA 7,4 KM DAUDE.**



→ Bidegorrien sareari osotasuna falta zaio eta ez da auzo guztietara iristen.

→ Bizikletak aparkatzeko tokiak gehitzen eta hobetzen joan dira, **BABESTUTAKO APARKALEKUAK FALTA KO LIRATEKE.**

APARKALEKUAK



Bi parking daude herrigunean. Herriak dituen aparkaleku beharretarako aski dirudien arren, herritar askoren pertzepzioa aparkaleku arazo handia dagoela da.



OINEZKO SAREEN EZAUGARRIAK



→ Herriko zerbitzu nagusiak (ludaletxea, ambulancia, kultur etxea, gizarte zentroa) kokatzen diren guneak oinezko edo trafiko baretuko gune bihurtu dira. Laubide auzoko kale nagusia ere oinezkoa da.



→ Auzoetan arkitektura-oztopo ugari daude oraindik, irisgarritasuna hobetzeko plangintza bat dago, auzo azko behar guztiak identifikatuta daude, eta urtero egiten dira hobekuntzak espaloiak hobetuz, eskailerak ahal den neurrian kenduz, etab., oraindik ere asko falta da hobetzeko.

GOIKO ALDEAN DAUDEN AUZOETARA IRISGARritasUNA HOBETZEKO BI IGOGAILU ERAIKI DIRA.

→ Eskolara oinez joateko MILAZANGOAK ekimenarekin jarraitzea ez da beharrezkoa ikusi, ikasle gehienak oinez joaten direlako eskolara.

HERRITARREK ESATEN DUTE:

- Irisgarritasuna hobetzen ari den arren oraindik ere gauza asko egin behar dira, auzoetan batez ere.
- Aparkalekuen inguruan iritzi oso desberdinak daude. Herrigunean eta auzoetan aparkaleku falta sumatzen dute askok baina beste batzuen ustez, aparkalekuak herrigunetik gertu baina kanpoaldean jartzea izango litzateke aukera ona.
- Bidegorriari sareari osotasuna falta ziola da iritzi nagusia.
- Hainbat puntuetan zebrabideak jartzea eskatzen da.
- Garraio publikoari dagokionez, herria ondo komunikatua dagoela esaten den arren, Donostiarako tren maiztasuna handitu beharra ikusten da eta Gasteizeko zerbitzua ere handitu.

LEHENTASUNEZ ESKU HARTZEKO EREMUAK:

- Herri barruan motorrik gabeko mugikortasuna sustatzea.
- Oinezko, bizikleta eta autoen elkarbizitza hobetu.
- Bidea sarearen planifikazioa eta seinalizazioa hobetu.
- Bidegorri sarea osatzea.
- Aparkalekuen karakterizazioa egitea sistema eraginkorrago bat bilatuz.
- Auzoetan irisgarritasuna hobetzea.
- Sentikortzea landu, informazioa zabaldu eta urbanistikoki lagundu, oinezkoak lehentasuna izan dezan herrigunean.

EREDU EKONOMIKOA



EREDU EKONOMIKOA




→ Tradizioz, Legazpi industri herria izan da, baina azken urte hauetan bilakaera jasaten ari da.

BALIO ERANTSI GORDINA SEKTOREKO

2012. URTE

- 1. Sektorea
- 2. Sektorea
- Eraikuntza
- 3. Sektorea



LEHEN SEKTOREA



→ Lehen sektorea etengabeko gainbehera doa aspalditik. Arazo nagusia errelebo eza da.

→ Eskualde mailan Bertatik Bertara proiektua martxan dago sektorea berpizteko asmoarekin.



BIGARREN SEKTOREA



→ Industri basamortuak sortzen ari dira eskualdeko herrietan enpresa gero eta gehiago kanpora alde egiten ari baita. Bestetik, hazi nahi duten enpresek eskaintzen diren pabiloien tamaina txikia izaten dute oztopo nagusi.

→ Eskualdeko enpresa handiak multinazionalak dira. Hauek lanpostuak bertan sortzen dituzten arren lurraldearekin loturarik ez dute eta erabakiak ez dituzte bertan hartzen. Horrek arriskua sortzen du.



HIRUGARREN SEKTOREA



→ Urtez urte denda gutxiago daude herrian, Legazpi ez da beste herrietako erosleak erakartzen dituen herria, alderantziz, legazpiarrek kanpoan erosteko joera dute (Zumarraga, Urretxu, Donostia,...)

→ Honi gehitu behar zaio azalera handiko merkatalguneetan erosteko joera orokorra, eta gero eta gehiago internet bidezko erosketak.



TURISMOA



→ Turismo sektorearen garapena herrian txikia da oraindik, eskaintza zabaldu beharra ikusten da bisitariak erakartzeko.



→ Turismoa eskualde mailan kudeatzen da, eragile desberdinez osatutako lan mahai bat dago, Eusko Jaurlaritzarekin, Foru Aldundiarekin, herri bakoitzeko udal ordezkariak, eta sektoreko ordezkariak. Lan ildo nagusiak dira:

- Lehiakortasunaren kudeaketa
- Produktu turistikoaren kudeaketa
- Sustapen eta merkaturatze turistikoaren kudeaketa
- Informazio eta harrera zerbitzuaren kudeaketa

→ Honez gain, Legazpiko baliabide turistikoaren kudeaketa Lenbur Fundazioak egiten du: Mirandaola, Erreizabal artzaintzaren ekomuseoa, etab.

ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA



→ Eskualdeko langabezi tasa baxuena du Legazpi, bai orokorra (%8,3) eta baita emakumeena (%10) ere. Gipuzkoa eta Euskadikoa baino baxuago ere bada.



→ Eskualdeko 40 urtetik gorako eta 25 urtetik beherako langileen prestakuntza maila Gipuzkoako langileen batez bestekoa baino baxuago da.

→ Martxan dago ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa duala gazteei lan merkatuan sartzeko aukerak zabalduzuzendua

→ Azken urteetako goranzko dinamika hautsiz, 2015ean beherakada txiki bat egon da langabezi tasa guzti hauetan.

→ UGGASAK ekintzaileei zuzendutako SORTZEN zerbitzua dauka, aholkularitza, formakuntza, cowork-a eta hainbat zerbitzu ematen dizkiena.


→ Biztanleria okupatuari dagokionean, Legazpin bizi eta kanpoan lan egiten dutenen tasa %58koa da (azken datua 2011koa da), igotzen ari den datua izanik ere eskualdeko baxuena da. Gipuzkoa eta Euskadi mailako datuen oso antzerkoko da Legazpikoa.

→ Lanerako orientazioa, enplegu zentroa eta lan-poltsa propio bat eskaintzen die UGGASAK eskualdeko langabetuei


⊖ Gizon eta emakumeen okupazio tasaren arteko aldea txikitu da azken hamarkadan baina oraindik ere nabarmena da eta Gipuzkoa eta Euskadikoa baino altuagoa da.

- Guztira
- Gizonezkoak
- Emakumezkoak


GENERO ARTEKO ALDEA



BALIO ERANTSI GORDINAREN BILAKAERA



LANPOSTUEN BILAKAERA



HERRITARREK ESATEN DUTE:

- Herrian bertan lan egiteko aukera gutxi daude, ekintzailetasuna sustatu beharra dago.
- Industria sektorea gainbeheran dago, dibertsifikazio bilatu behar da, industria modernoa eta garbia beste jardura batzuekin konbinatu beharra dago, hala nola, pertsonen zerbitzuak eskaintzearekin, turismoarekin eta naturarekin (ingurunea eta parke naturala) lotutako jarduerekin.
- Oso garrantzitsua da lehenengo sektorea babestea. Baserria giltzarria da elikagaien tokiko ekoizpena eta kontsumoa sustatzeko.
- Tokiko merkataritza berriro orientatu beharra eta lagundu beharra dago. Herrikanpo, azalera handietan, erosteko ohiturak aldatu behar ditugu, tokiko merkataritzaren aldeko apustua eginez eta Legazpin ezarri daitekeen merkataritzaren alde eginez.

LEHENTASUNEZ ESKU HARTZEKO EREMUAK:

- Lehenengo sektorea balioan jarri Legazpiko ekonomiaren bilakaeran garrantzia emanez.
- Industria gune eremu aktibo eta berritzaileak sustatzea.
- Herriko merkataritza indartzea.
- Teknologia jarduerak sustatzea.
- Legazpiko ekonomian eragiten duen turismoa sustatu.
- Lan merkatuan sartzeko arazoak dituzten taldeen (emakumeak, gazteak, ...) prestakuntza sendotu eta ekintzailetza sustatu.

HONDAKINAK



HIRI HONDAKINEN SORRERA

→ Hiri Hondakin mota guztien bilketa Sasietako mankomunitatea egiten du, industria guneetan ere, Hiri Hondakinen parekoak jasotzeko zerbitzua ematen du.



→ 2006 urtekoa da sorrera daturik altuena, **BIZTANLEKO ETA EGUNEKO 1,4 KG SORTZEN ZIREN, 2015 URTEAN BERRIZ 0,72 KG** sortu dira.

GAIKAKO BILKETA ETA HONDAKINEN TRATAMENDUA

→ 2013ko urrian hondakin bilketa mistoa ezarri zen, errefusa atez ate biltzen zen, organikoa atez ate edo edukiontzi bitartez egiteko aukera zegoen, eta bestelako hondakin guztiak edukiontzi bitartez biltzen ziren. Herri galdeketa baten ondoren, 2016ko otsailean hondakin guztien bilketa edukiontzi bitartez egiten da.



→ 2001 urtetik birziklapen tasa handitzen joan da, **2013AN %41ekoa ZEN, 2014 URTEAN SISTEMA MISTOAREKIN %83ra IGO ZEN ETA 2016EAN MARTXOA ARTE %80a DA.**

→ Auzo konpostajerako 6 etxola daude eta 86 familiek hartzen dute parte, eta beste 112 familiek egiten dute autokonpostajea.

HIRI HONDAKINEI BURUZKO ORDENANTZAK ETA ZERGAK

→ Sasietak bere zerbitzua bi ordenantza bitartez erregulatzen du, bata industria guneetako zerbitzurako, bestea etxeko eta merkataritza zerbitzurako.



LEGAZPIKO UDALAK 2014 URTETIK KONPOST-GUNEAK ERABILTZEKO ORDENANTZA DAUKA.


→ Hondakinen tasa bakarra dago, ez da sortzen den arabera ordaintzen.

SENTSIBILIZAZIOA

→ Sasietak burutzen ditu sentikortze ekintzak, baina Udalak ere burutzen ditu hainbat ekintza hondakin sorrera gutxitzeko, dendarien elkartearekin elkarlanean poltsa berrerabilgarrien banaketa plastiko hondakin gutxiago sortzeko, erosketarako tupperrak eta orgatxoen erabilera sustatzeko, etab.



HONDAKIN SORRERA ETA NORAKOA



ATMOSFERA



ATMOSFERARA EGINIKO ISURIAK


→ Ibilgailuek sorturiko isuriez gain, industria jarduerak dira kea eta usaina sortzen duten foku oso garrantzitsua.



→ Isurpen foku hauek ezagutzen ditu Udalak, eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlana egin izan du, beharrezkoa izan denean, hauen kontrolerako. Eskualde mailan ere batzorde bat dago honen inguruan lan egiten duena, baina azken urte hauetan ez da bildu.

AIREAREN KALITATEA

URTEKO ZENBAT EGUNETAN AIRE KALITATEA OSO ONA, ONA EDO HOBETZEKO MODUKOA IZAN DA



→ Datuen arabera aire kalitatea hobetzen ari da urtez urte.

→ Pertzepzioa ez da hori, enpresa batzuk kea botatzen dute eta honek larritu egiten du.

→ Enpresek eragindako usain txarrak nabaritzen dira sarritan eta arazo honek azterketa bat egitea eskatzen du.

AKUSTIKA



KALITATE AKUSTIKOA ETA BERE KUDEAKETA

Zarata maparen lehen fasea burutu da ibilgailuek, trenak eta industria jarduerak sortutako zarata aztertuz. Bigarren fase batean hiriguneko zarata neurtu eta aztertuko da zarata-mapa guztiz osatzeko.



Egungo egoerari erreparatuz, Legazpin 213/2012 Dekretuan zehaztutako **HOTS-KALITATEAREN HELBURUAK %95ean BETETZEN DIRA.**

LURZORU



LURZORUEN KALITATEA ETA BERE KUDEAKETA

Udalerriko 73 kokapenek dute edo izan dute lurzorua kutsatu dezakeen jardueraren bat, guztira 540.558 m².



Hauetatik 2005-2014 urteen bitartean **3.586 M² BERRESKURATU DIRA ERABILPEN BERRIETARAKO**, eta beste lurzoru batzuen kalitatearen ziurtagarria lortzeko lanean jarraitzen du Udalak.

EKONOMI JARDUEREN ARRISKUA ETA KUDEAKETA



Jarduera sailkatuen zerrenda badago, eta bakoitzaren egoera ezagutzen da. Eusko Jaurlaritzak ezartzen ditu betekizunak, gehienetan baimenak lortzeko egin beharreko egokitzapenak koste ekonomiko oso handiak izaten dituzte eta ez dira betetzen, beraz salaketarik edo kezarik ez badago, Udala ez da oso zorrotza izaten. Hala ere, jardueren kudeaketa hobetu beharra dago.



2004 eta 2010 urteen bitartean 9 enpresek zuten Ingurumen Kudeaketa Sistema bat ezarrita.

HERRITARREK ESATEN DUTE:

- Kale garbiketa hobetu beharra dago herriko hainbat gunetan eta zakarrontzi gehiago jarri eta erabili behar dira.
- Hondakin bilketaren inguruan iritzi desberdinak daude, baina herritarren kontzientziak eta konpromisoa handitu behar dela argi ikusten da.
- Hondakinen murrizketa eta berrerabilpena ere sustatu beharko litzateke.
- Airearen kalitatea hobetu dela aipatzen da, baina hainbat enpresek sortutako kea eta usainak kezkatzen dute, herriko sarreran batez ere.
- Zarata arazo puntualak aipatzen dira, asteburuetan, motorra eta autoak, etab.

LEHENTASUNEZ ESKU HARTZEKO EREMUAK:

- Hondakinen prebentzioa (murrizketa eta berrerabilpena) sustatzea.
- Hondakinen tasa justu baterako bidea sustatzea.
- Hondakinen gaikako bilketan herritarren kontzientziak eta konpromisoa handitzea.
- Airearen kalitatearen (usainari garrantzia emanez) inguruko datuen ezagutza eta ulermena handitzea eta zabalkundea egitea.
- Zarata maparen emaitzak hiri plangintzan integratu.
- Ingurumen kudeaketa sistemen sentibilizazioa enpresatan.

- 1 / GOBERNATZEKO MODUAK
- 2 / IRAUNKORTASUNERA BIDERATUTAKO UDAL KUDEAKETA
- 4 / KONTSUMO ETA BIZIMODU ARDURATSUAK

UDAL ADMINISTRAZIOAREN EROSKETA PUBLIKOA ETA INGURUMEN KUDEAKETA

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO IRAUNKORRA



→ 2008 urtean Udal Batzak Legazpiko Udalean eta bere erakunde autonomoetan papera eta deribatuak erosteko jarraibidea onartu zuen.

→ 2009 urtean Legazpiko udalak erosketa eta kontratazio etikoaren konpromisoa hartu zuen.

→ 2013 urtean Legazpik Bidezko Merkataritzaren aldeko Herria izatea lortu zuen.

→ 2010-2016 bitartean Udalak atera dituen **BALDINTZA AGIRIEN %30ek INGURUMEN IRIZPIDEAK IZAN DITUZTE ETA %7ak GIZARTE IRIZPIDEAK.**

➖ **Hurrengo pausoa genero ikuspegia agirietan txertatzea izango litzateke.**

→ Baldintza agirietan irizpide hauek guztiz txertatzeko prozedura bat beharrezkoa da.

UDAL ADMINISTRAZIOAREN INGURUMEN KUDEAKETA



→ **BI EKOSCAN ZIURTAGIRI DITU UDALAK,** Obretako Brigadan eta Udaletxeko Erakinean. Beste zerbitzu batzuetara zabaltzeko asmoa agertzen da aurreko Ekintza Planean, baina ez da burutu.

→ Energia eraginkortasuneko ikuskaritzak egin dira udaletxe, kultur etxe, kiroldegi eta euskaltegian.



PARTE HARTZEA



→ Udaleko sail desberdinetan elkarte eta herritar desberdinek parte hartzen duten lantalde irekiak daude.

→ **LEGAZPIKO AGENDA 21 FOROAK 15 URTE BETE DITU ETA 100. BILERA OSPATU ZUEN 2016KO APIRILEAN.** Urtean 8-9 aldiz biltzen da, batez besteko partaidetza 24 pertsonakoa izaten da

→ 2007 urtean Udal Batzak Foroaren partaideekin landutako "AGENDA 21. HERRITARRAK PARTE-HARTZEKO FOROAREN IZAERA ETA FUNTZIOAK ETA LEGAZPIKO UDALAREKIN DUEN HARREMANA" dokumentua onartu zuen.

→ Udaleko web orrian **ON-LINE FORO** bat sortu zen Agenda 21 Foro beraren eskaerari erantzunez, baina **HERRITARREK EZ DUTE ERABILTZEN,** ez da inolako ekarpenik jasotzen.

ELKARTEEN SAREA



Elkarte ugari daude Legazpin gai desberdinen inguruan (kulturalak, gizarte ekintzakoak, ...), udaleko sail desberdinekin elkarlan handia egiten dutenak.

BARNE KOORDINAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA



2015 urteaz geroztik udal antolaketa berria dago. Udal kudeaketa hiru batzordek osatzen dute eta guztiak koordinatzeko zuzendaritza talde bat dago, **AGENDA 21 LURRALDETSUN BATZORDEAN DAGO,** beharren arabera lantalde bereziak sortzen dira, eta behar hori ikusten bada, iraunkortasuneko lantaldea sortuko da."

KOMUNIKAZIOA

www://

Ohiko komunikazio kanalez gain, web orria eta sare sozialak erabiltzen ditu Legazpiko Udalak.

Azken hauek **INFORMATZEKO KANAL EGOKIAK DIRA,** hala ere, oso instituzionalizat hartzen ditu jendeak, eta **EZ DAGO INTERAKZIO HANDIRIK,** ez da iruzkinik jasotzen.

Web orriaren bitartez eskaera orriak jaisterik dagoen arren tramiteak ez dira web orriaren bitartez burutzen.

SENSIBILIZAZIOA




Mota askotako sentikortze kanpainak egiten dira, Udalak antolatuta eragile desberdinekin elkarlanean. Iraunkortasunarekin loturiko gai desberdinen inguruan izaten dira kanpainak: hondakinak, kontsumo arduratsua, mugikortasuna, etab.

Herriko hiru ikastetxeetan ezarrita dago Eskola Agenda 21, eskualde mailan koordinatzen da, baina Legazpin, lankidetzeta hau aprobetxatuz, Erreka eguna eta Bizikleta Eguna antolatzen dira urtero ikastetxeekin elkarlanean.

TOKIKO AGENDA 21 ETA ESKOLA AGENDA 21 ARTEKO KOORDINAZIOA MAXIMOA da Udalsarea 21ek hau neurtzeko duen metodologiaren arabera.

HEZKUNTZA-SENSIBILIZAZIO EKINTZAK



TOKIKO AGENDA 21 KUDEAKETA

→ Legazpiko Agenda 21ak aintzatespena eta hainbat sari jaso ditu Udalsarea 21en aldetik. Aipagarriak dira 2012 urteako **URREZKO TAK21 SARIA,** 2012an Erreka egunak Hezkuntza Iraunkortasunaren kategorian saria, eta 2010ean Illinti dendari elkartearekin eginiko kontsumo arduratsuen kanpainak.

→ Tokiko Agenda 21eko kudeaketa eta koordinaziorako teknikari bat dago.

→ Tokiko Ekintza Plana MUGI bitartez kudeatzen da, urtero egiten da planaren ezarpen mailaren jarraipena eta iraunkortasun adierazleen jarraipena.

HERRITARREK ESATEN DUTE:

- Udalaren iraunkortasunarekiko konpromisoa ongi baloratzen da, Tokiko Agenda 21aren bitartez eta ingurumena zaintzeko sustatzen dituen ekintzen bitartez, Erreka eguna. etab.
- Agenda 21eko foroaren bidezko herritarren partaidetza positibotzat jotzen da, eta Legazpiarren ingurumenarekiko sentsibilizazioa hobetu dela ikusten da.
- Garrantzia ematen zaio Udalak erosketa eta kontratazioan iraunkortasun irizpideak txertatzeari, Agenda 21 eta Aldaketa Klimatikoaren inguruko informazioa emateari eta orokorrean Udalar buruzko informazioa emateko moduak dibertsifikatzeari.

LEHENTASUNEZ ESKU HARTZEKO EREMUAK:

- Baldintza agiri guztietan ingurumen (energia, ...) eta gizarte irizpideak (genero ikuspegia barne) txertatzeko prozedura ezartzea.
- Udal pertsonal politiko zein teknikoak, eta bereziki, erosketak egiteaz arduratzen den langilegoa prestatzea eta sentikortzea.
- Ingurumen kudeaketa sistemak beste eraikin batzuetara zabaltzea.
- Udala eta elkarten arteko komunikazioa areagotzea.
- Elkartetako errelebo falta gainditzeko gazteen inplikazioa bilatzea.
- Barne koordinazioa eta komunikazio sistema berria egonkortu eta sendotu.
- Administrazioa eraginkortzea: administrazio telematikoa, e-administrazioa eta administrazioaren modernizazioa garatzea.

HEZKUNTZA

HEZKUNTZA ESKAINTZA ETA ESKAERA



→ **0-18 urte** bitarteko hezkuntza eskaintza dago, bi haur eskola publiko 0-2 urtekoentzat, eta eskola publikoa eta ikastola kontzertatua 2-18 urte arterakoentzat.

→ **16-18 urte** bitarteko hezkuntza eskaintza bakarra batxilergoa da, eskualde mailan lanbide heziketa dago.

⊖ **Azken 10 urteetan emakumeak lanbide hezkuntzan duen presentzia handitzen ari da eskualde mailan,...., %22tik %30era pasa da. Osasun arloko zikloetan %80a emakumeak dira.**

→ Udala eta ikastetxeek gain, musika eskola eta helduentzako hezkuntza, besteak beste, biltzen dituen hezkuntza batzorde bat dago. Bertan, Landuko diren eskolaz gaidiko proiektuak adosten dira.



GAZTERIA



→ Gipuzkoan finkatutako **GAZTEMATIKA**ren barruan lan egitean da, hau da, Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Sistemari.

→ Legazpiko nerabe zerbitzua aitzindarietako bat da, 2004 urtetik dago martxan, 12-15 urte bitartekoentzat Gazte-txokoa dago eta 16-18 urte bitartekoentzat proiektu berezi bat baita ere.

→ 2016 urtean **HAURREN (12 URTEKIK BEHERA) BEHARRAK AZTERTZEKO IKERKETA** egingo da zerbitzua martxan jartzeko.

⊖ **Eskualde mailako berdintasun sailak BELDUR BARIK programa lantzen du eskolekin eta gazteen aisialdi espazioetan. Eskualdean sortutako lan dinamikak erreferente bihurtu dira.**

EUSKARA

EUSKALDUNTZE MAILA: EZAGUTZA ETA ERABILERA



EUSKARAREN EZAGUTZA INDIZEA 2011 URTEAN %67,8koa ZEN, ERABILERA BERRIZ %27koa.

→ Haurren %40ak erabiltzen du euskara, gazteek berriz %18ak bakarrik, haurtzaroan egiten den erabilera ez galtzea gakoa da.

→ Euskarak herrian duen erabileraren banakera esanguratsua da: auzoetan oso gutxi erabiltzen den bitartean (%7) herrigunea da euskarak erabilera handiena duen eremua (%45).



UDAL POLITIKAK ETA EUSKARA UDAL JARDUERAN



DEKRETUZ, 18 URTEKIK BEHERAKOEI ZUZENDUTAKO EKINTZA GUZTIAK EUSKARAZ ANTOLATZEN DITU UDALAK.

→ Udalak zerbitzu guztiak euskaraz eskaintzen ditu, barne lanean berriz sail guztiak ez dute euskaraz funtzionatzen, eta IKTein ere arazoak izaten dira, erabiltzen diren aplikazio gehien euskarazko bertsioak berandu iristen direlako.

→ Momentu honetan Udal barneko euskararen erabilerarako V. plana martxan dago, plangintza hauen helburua, udaleko zerbitzu guztien barne funtzionamendua euskaraz izatea da.

EUSKARA ETA KULTURA



EUSKAL KULTURA SUSTATZEAREN, HONI EMATEN ZAIO BETI LEHENTASUNA PROGRAMAZIOAN.



→ Orokorrean herri lasaia da, mota desberdinetako gatazkak gerta daitezke une puntaletan (lapurretak etxebizitzetan, denda edo tabernetan, kale bandalismoa, etab.).

→ Etorrkinak eta gainontzeko herritarrek ez dira leku berdinetan elkartzen. Emakume etorkin musulmanen kasuan integrazioa zailagoa da beraien erlijio-kultura dela eta.

KULTURA EKIPAMENDUAK ETA JARDUERAK



→ Kulturarekin erlazioa duten herriko elkarte guztiak batera osatzen da Legazpiko urte osoko programazio kulturala. Mota desberdinetako elkarteak dira, musikakoak, argazkilaritza, marrazketa, dantza, etab.

→ Herrikoen lana erakustaraztea du helburu. Honez gain, programazioa osatzeko bestelako ekintzak ere kontratatzen dira.

→ Urtez urte errepikatzen diren jarduera ugari daude: Diapositiba emanaldiak hilean behin, musika eta arte eszenikoak DVDn hilean behin, azaroan musika, Uztaila kulturala.

→ Azken hau udaleko sail desberdinen, kultura, gazteria, euskara eta kirol sailaren artean alegia, antolatzen dira.



BIZIKIDETZA



HERRITARREK ESATEN DUTE:

- Euskararen erabilera sustatu behar da, euskaltegiak merkeagoa izan beharko luke.
- Kultur etxea eta liburutegiaren orduetegiak zabaldu behar dira.
- Haurrentzako ludoteka behar da, orain dagoen zerbitzua adin tarte gehiagotara zabaldu.
- Gizarte-mugimendu garrantzitsu eta askotarikoa dago herrian ondoko arloetan: kultura, gazteria, kirola, gizarte ongizatea, etab. baina errelebo falta dago.
- Legazpin elkarte eta pertsona asko daude musu-truk lan egiteko boluntario gisa ari direnak.
- Udalaren eta erakundeen edo elkarten arteko komunikazioa areagotzea eta hobetzea behar da.
- Gaztetxea oso aktiboa da eta Udalaren laguntza jasotzen du kudeaketa-lanetarako.
- Herri lasaia da eta segurtasun aldetik harro egoteko modukoa.

LEHENTASUNEZ ESKU HARTZEKO EREMUAK:

- Nerabe zerbitzuaren modura, haurrentzako zerbitzua garatu.
- Estrategia / programa berriak bilatu euskararen erabilera bultzatzeko.
- Hizkuntzaren transmisioan eragin.
- Udaleko sail guztien barne funtzionamendua euskaraz izatea.
- Kultur ekipamenduak herritarren beharretara gerturatu.
- Aniztasunaren kudeaketa sustatu.
- Udala eta elkarten arteko komunikazioa areagotzea.
- Elkarteetako errelebo falta gaitzeko gazteen inplikazioa bilatzea.

